



Joxe Azpiazu bere lagunekin



ñatik emun dauen musikurik inportantienetako bat, **Joxe Azpiazu**, etzan gure artian oso ezaguna, harik eta orain dala urte batzuk haren biografia publikau zan arte. Lan horrek, **Joxe Antonio Azpiazuk** moldauta, 2000. urtian urten eben **Airean** izeneko Euskal Herriko Kitarra Alkartiaren eragiñez. Orduan ezagutu gittuan hobeto kittarrajole autodidakta honek izan zittuan hasiera nekosuak: batetik, aukeratu eben musika-instrumentuak garai haretan ez eukalako hemen estimaziño haundirik, pieza klasikuak joteko behintzat; eta bestetik, gerra osteko urte illun eta zail hareitan etzalako komenentzia eta samurtasun larregi kartzelan egondako galtzaille batenzat.

Hala ta be, saiatu zan Joxe bere bokaziñua aurrera ataraten. Oñatititik kanpora erakutsi zittuan bere abildadiak, Santander, Bilbo, Bitorixa, Donostia, Tolosa eta abarretan hainbat emunaldi eskiñixaz. Baiña gose-urte hareitan ixa ezinezkua zan musikatik bizittia eta orduko giro estu eta ziztriñak itto egitten eben gure artistia. Horregatik, aposte gogorra egiñaz, Suitzara jo eben 1950ian aukera barrixen billa. Han, **Andres Segovia** kittarrajole famauaren laguntziaz **Geneva**-ko (Ginebra) konserbatorixuan katedria eskuratu eben kittarra-irakasle moduan. Maixutzan ez ezik, kontzertu, grabaziño eta musika-argittalpenetan be laister nabarmenndu zan Azpiazu Europako bazter askotan, azken hamarkadetan **Lupe** alabia lagun ebela. Kittarra klasikuaren munduari dagokixon saillian ibilbide luze ete aberatsa burutu ondoren, 1986ko abenduaren 27xan hil zan Azpiazu Geneva-n eta hantxe dago lurperatuta.

Suitzara fan eta puska batian etzan jaixoterrira bueltau. Baiña gerora sarritxo etorten hasi zan eta halakuetan, jakiña, antxiñako lagunekin eta beste adiskide batzuekin alkarketan zan kontu zaharrak gogoraketako eta noizian behin afaritxoren bat egiñteko. Halako batian ataratakua izango da gaur dakartzuegun fotografixia. **Luixeneko** tabernako jantokixan agiri diranak gaztetako kuadrillakuak ei ziran, nahiz eta danak edade berberekuak ez izan. Ezkerretik eskumara honeitxek ditzuzue mahakidiok:

Zutik: Luis Arrieta, Zerrajeruenekua; **Joxe Aiastui**, Kubakua, Bitorixara fan zana; eta **Alberto Altuna**, Atzeko kalekua. **Jarritta:** Antonio Guridi *Ipentza*; **Ion Galartza**, Bakardade kalekua; **Joxe Azpiazu**, kittarista txantxiukuar-suitzarra; **Iñazio Egaña**, Kale Barriko panaderixakua; **Joxe Mari Letamendi**, plazako jantzi-dendakua; **Patsi Igartua**, Arantzazu kalekua; eta **Doroteo Arrazola**, Kasablankako kurtiderixakua.

Argazkixa 1950ko hamarkadako azkenaldikua izango dala uste dogu. Berrogeta hamar bat urte eukiko dittu, eta ezpadako urrin barik ibilliko da.

J. E.

Fotografixia Iñaki Ormazabalek itxi dosku eta Alberto Altunak, berriz, argibide batzuk emun. Eskerrik asko bixoil!